

Izakera eta jokera au garbi-garbi agertzen da azken garaiotan euskerari buruz darakusgun portaera zistriñaren alorrean.

Autuan diardugula, mesedegarri eta argigarri izango litzakigu "Gorrotoa lege" izeneko elebarria irakurtea, Yon Etxaidek euskera eder'ean idatzirikoa eta Erdi Arran, amabosgarren mendean, oiñaztarren eta ganboatarren ekiñaldietan girotua.

Leenago. Txomin Agirre, ondarrutar otsaundiko idazle eta elebarrigilleak, Erdi Aroko euskaldunen arteko gora-beerak eta aditu-eziñak gaitzat arturik, laugarren irakurgai osotzeko asmoa izan ei eban, baiña liburu burutu baiña leen, il egin ei zan, eta Agirre ondarrutarrak ezin amaitu izan ebana, Yon Etxaidek egin eban, elebarraren berba-aurrekoan ber-berak dirauskunez. Txomin Agirrek "NI ta NI" izenburua ipinteko asmoa ei eban. eta izenburu ori oso egokia izan zeitekean euskaldunon izakera: "NI ta NI". edo obeto: "NEU ta NEU".

Gure izkuntzaren il-nai-biziko ordu larri onetan alkar artu eziñekoak garala euskaldunok, esan dogu oraintxe, konpongatzak, norberakotiak edo norberakoiak, geureari temati eustekoak, geurea baiña ez egitekoak, errian esaten danez, "buru gogorrak"... Bide orretatik euskararen arloan ez dakit nora eldu gaitkezan euskaldunok. Urrun-urrun ez!

Manuel Lekuona, aaztu eziñeko irakasle bikaiñari. bein baiña geiagotan entzun izan neuntsan: "Oinaztarren eta ganboatarren odola daramagula euskaldunok gure zainetan" Egia. egia!!

Eta gure zanetako odol onek irakin eta irakin egiten dau bizitzako geure agertaldietan, euskera gure berbakuntzari gagokiozala be bai.

Adibidez, euskaltzale batzuk, "h" euskeraz ikusi baiña deabruaren okotza ikusi gurago dabe. Beste batzuek, barriz, "h" bagako euskera irakurri orduko "moro" biur-tuko litzatekez.

Ez bata eta ez bestea. Emen be, beste arazo askotan lez, ertzekeri edo neurriz-gorako jarrera eta jokaeren guztien gaiñetik, erdibidea izango litzateke opagarriena eta jarraigarriena, ene eretxiz.

Euskera bera dogu leentasuna daukana, ez "h"-dun euskera, ez "h"-bakoa.

Euskera gal badadi, zein onelango zein arelango euskera alper-alperrik letorkiguke.

Gogoeta oneek irakurle guztiai eskeintzen dautsedaz, bakotzak bere kolko barruan azter eta ausnar dagizan. ON EGIN DAIZUELA!

Irailak 20, 1998

AGIRREGABIRIA

BAKEA GORA, BAKERA

BEERA

Bakea dabil agorik ago. Inoizkorik sarrien. Bakea gora, bakea beera.

Alde batekoek zein bestekoek. Bakea eskatu izan jake batzuei bakarrik.

Erri au, baina, bake egarri izan da eundaka urtetan. Erri au beti bakezalea izan dalako, jakina. Askatasun egarri dan Erriak bakezale baino besterik ezin dau izan. Bizirik irauteko bakea bear daualako. Ez edozein bakerik, ez edozelango bake merkerik ez. Zuzentasunean oinarritutako bakea baino.

Arrain andiak txikia irunsi ta jan... Indarrak aginduten dau or. Indarrak pertsonen eta Errien eskubideetan agindu daroa, zuzentasunaren aurka.

Zuzentasunaren eskubideak luzarogian egon dira ostenduta gure Erriarentzako. Berba ederra *zuzentasuna*; arrain andiak aaztua, baztertuta, baina.

Zuzentasun barik ez dogu Erri onetan bakerik jade-tsiko. A barik ez da ezer onik bertan egongo. Bera da bakearen ibilbidea eta ibilgailua, oinarria eta zutabea.

Gure Erriak bakea gura dau, argi ta garbi, baina zuzentasuna bide dala, oinarri dala.

An-or-emenka dabil *bakea* berbea. Inoizkorik sarrien. Bakea aginduten deuskue, mamin bakoa. Bakean buruz dabilz, ez zintzoro esan eta agintzetan. Zuur egon!

Iniaki MARTIARTU

1998ko urrian

